

BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroek nahi duten edozein prenda aukeratzeko (kamiseta, jertseak, etab) eta aldatzeko/modifikatzeko beharrak asetzeko sortuko dugu. Denbora ez galtzeko, beti arazo bat dela eta, nahi duten arropa perfektua egiteko enpresa bat eskainiko diegu. Helburu nagusia, bezeroen beharrak asetzea izango da. Ikasi duguna praktikan jarriko dugu, gehiago ikasteko eta horrekin enpresa aurrera ateratzen bada, etekinak ateratzea ere helburu bat izango da, baina garrantzitsuena, gure enpresak, edozein arrazoirengatik nahi ez dugun arropa berrerabiltzera eta gehien gustatzen zaizun eta gehien erabiltzen duzun arropa bihurtzera bultzatuko zaituela da. Horretarako, egoera onean dagoen eta gustuko ez duzun arropa gure dendetara ekarri ahal izango duzu, edozein aldaketa egiteko eta, ondoren, jantzi hori gustukoena edukiko duzu. Gure enpresarekin, arropa hobit bidez erostea saihestu nahi dugu eta, horrela, gure planetan eragina duen arropa masifikatzea saihesten dugu.

Beste helburu bat, gure enpresa 2 urteetan %20 haztea izango da. Zaila izango da, baina horretarako informazioa bilatu dugu eta merkatua ikasi dugu helburu horretara iristeko. Hasieratik, bezeroen parte hartzea izan beharko dugu, haiek enpresaren atal oso nagusia izango direlako, haien proposamenak kontuan izango ditugulako.